



MERKATU SEGMENTAZIOA

Gure produktua edozein pertsonak erosi dezake, mugikorrarentzat funda bat delako eta gaur egun mundu guztiak erabiltzen duelako mugikorra.

Hala ere, gehien bat gazteentzat bideratuta dago edo mugikorrarekin lan asko egiten duten pertsonentzat, gazteek mugikorra asko erabiltzen dutelako eta langileek beraien lanean asko erabiltzen dutenez mugikorrean bateria behar dutelako.

Gazteei dagokienean adin tartea 18-40 artean kokatzea egokiena dela uste dugu. Bestalde, lan egiten dutenen artean gure produktua erabiliko duten gehiengoa autonomoak izango direla. Beraz, gure mugikorraren funda berritzailea bezero target hauetara bideratuko ditugu.

Bestalde, erosiko duten pertsonak erdi maila ekonomikoa izango dute, Ubiet normalak 40 euroko prezioa izango duelako eta ubiet + modeloak 60 euroko prezioa izango duela.

Bi produktuen prezio desberdintasuna honengatik da, 40 euroko fundak "Ubiet" eguzki plaka dauka atzekaldean eta horri esker mugikorra eguzkiaren izpiekin kargatzeko aukera ematen du. Bestalde, Ubiet+, 60 eurokoa, aurrekoaren ahalmen berdina dauka, baina hobekuntza batekin, mugikorrak %100a lortzen duenen, lortzen hari den energia gordetzen jarraituko du, fundak duen bateria batean, bateria eramangarri bat izango balitz bezala, eta nahi duzunean izango duzu aukera mugikorra kargatzeko bateria horren energia erabiliz.

Ez baduzu mobila asko erabiltzen edozein beste funda erosi dezakezu eta merkeago dira.